

FUNTSEZKO ELKARTEA

Gure produktua aurrera eraman ahal izateko, funtsezko hainbat elkarte beharko ditugu, guk gure produktua saldu egingo dugulako, ez ekoitzi. Ekoizpen horretarako, hainbat aliantza beharko ditugu; eta guk “Stadler”, “Omar Coating”, “Sellex” eta “Leroy Merlin”, aukeratu ditugu, gure produktua aurrera eraman ahal izateko.

Ekoizpenarekin hasteko, lehenik, egurra birziklatuko digun enpresa bat behar dugu, gure kasuan, Stadler izango dena. Enpresa honek gure altzariak egiteko erretxina sortuko digu egurra birziklatuz. Egurra txikituko digu mekanikoki. Gero, elektro-iman batekin eta materialak banatzeko makina batekin metalak eta beste material guztiak egurretik bananduko ditu. Azkenik, zinta baten bidez erretxiña tolba eta kutxetan sartuko dute hurrengo pausua burutzeko.



Hurrengo pausoa, erretxina erabiltzea izango litzateke. Horretarako, “Omar Coatings” enpresa aukeratu dugu. Enpresa honek material teknologigoki aurreratuek eta jasangarriak egiten ditu, substratuak babesteko, edertzeko eta hala, ingurumenari inpaktu txikiena egiteko. Horrez gain, beraien enpresaren helburuak hiru negozio-eremuren bidez gidatzeko aukera ematen ditu: bernizak, erretxinak eta espezialitateak. Guk gure produktua aurrera eramateko, erretxina erabili beharko dugu. Omar Coatings-en erretxina fabrikatuak termoeogonkorren barruan sailkatutako likidoak dira; propietate hori katalizatzaileen eraginez gogortu ondoren, ezin dute jatorrizko egoerara itzuli (beraz, esan dezakegu, solido disolbaezinak bihurtzen direla). Erretxina hori poliol poliesterezko erretxina bezala erabili beharko genuke, hidroxilo libre ugari dituen erretxina, likido-forman diluitu gabe agertzen dena eta isozianato-erretxinekin erreakzionatzeko aukera ematen duena. Hala, enpresa honen bitartez, aurretik birziklatutako egurra erretxinarekin nahastuko dugu.

Ondoren, erretxinaren bidez sortutako egur tabla birziklatuak gure bazkide den “Sellex” enpresak altzari bihurtuko dizkigu. Horrela, prozesu hauen bidez, guztiz birtziklatutako altzariak lortuko ditugu, ingurumena eta natura errespetatzen dutenak. Enpresa hau Donostian dagoen horretan, merkeagoa aterako zaigu kostuei erreparatuz. Horrez gain, enpresa esanguratsua iruditzen zaigu, baita konfiantzazkoa ere, hainbat pertsona ezagunekin lanean aritu baita, hala nola, Lievore Altherr Molina edo Burkhard Vogtherr. Esan genezake, enpresa honek guk bilatzen dugun guztia duela, ingurumenaren alde ere lanean aritzen baita.

Bukatzeko, hasieran “Leroy Merlin” enpresak gure salmenta aurrera eramaten lagunduko digu; bere denda fisikoen bitartez, bezeroak gure produktuak ezagutzeko aukera izateko eta denbora pasa hala, enpresa handitzen joaten den heinean, dendan bertan erosteko aukeraz gain, gure web orria bisitatzeko aukera ematen hasiko gara. Bigarren modu hortan, diru sarrera handiagoako lortzeko aukera izango genuke. Galderarik edo izanez gero, gure gmailera idazteko aukera izango dute.

